

aisialdirako eta mugikortasun SEGURURAKO



JAR- DUE- RAK



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

SEGURTASUN SAILA
Segurtasun Sailburuordetza
Tráfico Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD
Viceconsejería de Seguridad
Dirección de Tráfico



2010-2014 aldirako Bide Segurtasuneko Plan Estrategikoaren helburuen artean dago Euskadin mugikortasun seguru eta jasangarria sustatzea, bide-erabiltzaileen arteko bizikidetza baketsua ekar dezakeen kultura aldaketa gertatzeko. Hala, trafiko-istripuak murriztea lortu nahi da, horrelakoetan hildakoak edo arin nahiz larri zauritutakoak ahal bezain gutxi izan daitezen beti.

Jakin badakigu kultura-aldaketak gertatzeko erakunde publikoen eta gazteekin lan egiten duzuen kolektibo eta eragile sozialen inplikazioa behar da. Hain zuzen, gazteak dira arriskutalde nagusietako bat, baina baita, aldi berean, lortu nahi diren aldaketen eta helburuen indar mugiarazle nagusia ere.

Mugikortasun segururako hezkuntza transbertsala da eta ez da egon behar adin edo hezkuntza-esparru jakin batzuetara mugatuta; alegia, jolas-, kirol- edo aisialdi-eremuetara zabaldu behar da.

Premia horretaz jabetuta, Segurtasun Sailaren Trafiko Zuzendaritzak honako jarduera pedagogikoen eta ikasmaterialen sorta hau prestatu du, nagusiki, denbora libreko hezitzaile eta begirale zaretenoi zuzenduta dagoena, gazteenekin harreman zuzena duzue-eta. Egun oinezko, bidegorri-erabiltzaile, motor-gidari hasiberri diren horiek bihar bolanteari helduko diote.

Arauak ezagutzea, arriskua hautematen eta ekiditen ikastea, ohitura seguruak eskuratzea eta elkarren arteko begirunean eta erantzukidetasunean hezteak, hori da Trafiko Zuzendaritzaren webgunean zuen eskura jarri dugun ikasmaterialaren prebentzio-eskema (www.trafikoa.net).

Eskerrik asko erabili eta ezagutarazteagatik.

Estefanía Beltrán de Heredia Arróniz
Segurtasuneko sailburua

Trafiko istripuak: benetako arazoa. | 4. orrialdea

Zer lortu nahi dugu mugikortasun segururako Plan Estrategikoaren bidez? | 5. orrialdea

Eta zer zerikusi du horrek aisialdiko hezkuntzarekin? | 6. orrialdea

Mugikortasun segururako gaitasunen eredua. | 7. orrialdea

Pertsona: alderdi gako prebentzioan 7. orrialdea

Noiz eta nola ikasi prebenitzen 8. orrialdea

Gure prebentzio eredua 9. orrialdea

Arreta. Zaurgarritasunaren eta arriskuaren kontzientzia. Ingurunea aztertzea. Taldekako presioarekiko erresistentzia. Egokitzea eta malgutasuna. Neure burua eta nire emozioak kudeatzea. Bideari lotutako egoeretan estresa kudeatzea.	11. orrialdea
--	---------------

Aisialdiko mugikortasun segururako proposatutako jarduerak. | 12. orrialdea

Proposatutako jarduerak (3 urtetik 8 urtera bitarteko haurrentzat) | 16. orrialdea

Proposatutako jarduerak (8 urtetik 14 urtera bitarteko haurrentzat) | 26. orrialdea

Proposatutako jarduerak (14 urtetik 17 urtera bitarteko neska-mutilentzat) | 40. orrialdea

Trafiko istripuak: benetako arazoa.

Garapenerako gure gizarte eredua ibilgailu motordunen erabilerari lotuta izan da, historian. Hazi eta hazi ari dira, etengabe, bai ibilgailuen kopurua bai urtean egin-dako kilometro kopurua eta errepideak ere. Mugikortasuna areagotu izanak ondorio negatiboak ere eragin ditu: kutsadura, auto ilarak eta, batez ere, trafiko istripuak. Hain zuzen ere, azken horiek tragedia amaigabea izaten dira, munduan heriotza gehien eragiten dituzten kausen artean zortzigarrena dira eta herrialde industrializatuetan 14 eta 29 urte bitarteko biztanle gehien istripuen ondorioz hiltzen da. Gaur egungo joerek erakusten dutenez, baldin premiazko neurriak hartzen ez bada, trafiko istripuak heriotza gehien eragiten dituzten kausetan bosgarrena izango dira 2030ean¹.

Munduan, urtero milioi bat lagun baino gehiago hiltzen da trafiko istripuen ondorioz, eta 50 milioi baino gehiago zauritzen dira. Trafiko istripuek bilioi erdi baino gehiagoko kostu ekonomikoa eragiten dute urtero mundu osoan, eta, kalkuluen arabera, herrialde garatuetan barne produktu gordi-naren (BPG) %2 eta 2,5 arteko kostu zuzena eta zeharkakoa du.

Egoera hain da larria, ezen NBERen Batzar Nagusiak «Bide Segurtasunerako Ekintza Hamarkada» izendatu baitu 2011-2020 aldia².

Euskadin, urtean berrogeita hamar hildako baino gehiago eragiten dituzte trafiko istripuek, eta bostehun lagun inguru larri zauritzen dira. Biktima horietako asko gazteak izaten dira, eta, batzuetan, haurrak ere bai. Epidemia isil deitu izan zaion horrek jende askorengan eragiten du zuzenean edo zeharka, eta ezin dugu horren aurrean hotz izan.

Arrisku-jokabideak itoaztearen irtenbidea dela pentsatzea eta pertsonak aldatu gabe sistema alda dezakegula pentsatzea gauza bera dira. Beste jolas batean jolas egin beharra dugu.

Eta, jolas horretan, espazio publikoetan aukera izan behar dugu guztiok elkarrekin bakean bizitzeko. Espazio publiko bat, zeinetan «zero ikuspegia»³ (trafiko istripuen ondorioz zero hildako eta zauritu izatea) ez den utopia izango, errealitatea baizik. Eta jolasean parte hartu behar dute egiten dutenaren eta zergatik egiten duten jakitun diren jokalariek, pertsonak; alegia, arriskua behar bezala balioztatuko eta beren zein guztion segurtasunerako erabaki egokiak hartuko dituzten pertsonak.



¹ Bide segurtasunaren munduko egoerari buruzko txostena (2013). Osasunaren Mundu Erakundea. [http://who.int/violence_injury_prevention/road_safety_status/2013/report/summary_es.pdf]

² 2009ko azaroaren 20an, Nazio Batuen Batzar Nagusiak 2011/2020 aldia Bide Segurtasunerako Ekintza Hamarkada izendatu zuen, 64/540 Ebazpenean, goiburua hau hartuta: Jarduteko unea da. Elkarrekin, milioika bizi salba ditzakegu.

³ Zero ikuspegia 1995. urtean Suedian sortutako terminoa da, eta ondorengo printzipio etiko hau du oinarri: inork ez duela trafiko istripuz hil behar. [http://publikationswebbutik.vv.se/upload/6634/100509_seguridad_vial_la_vision_cero_en_camino.pdf]

Zer lortu nahi dugu mugikortasun segururako Plan Estrategikoaren bidez?

Eusko Jaurlaritzako Trafiko Zuzendaritzak hainbat urtez dihardu trafiko istripuek eragiten dituzten hildakoen eta zauritu larrien kopurua murrizteko ahaleginetan. Eusko Jaurlaritzaren ekintza gehiengotik bezala, Trafiko Zuzendaritzak ere dokumentu edo ekintza plan bat egin du: «EAEko bide Segurtasuneko Plan Estrategikoa. 2010-2014».

Plan Estrategikoaren arabera, bideko segurtasun gabezia gizarte arazo larria da gaur egun oraindik, nahiz eta azken urteotan emaitzak hobetu diren.

Plan Estrategikoan ezarritako xede-helburuetako bat errepidean biktima kopurua murrizteari lotuta dago. Baina ez ezazu pentsa, errepideaz dihardugunez, helburu horrek soilik autoei eragiten dienik... Oinezkoak eta bizikletak ere helburu horren barruan sartzen dira.

Beste xede-helburuetako batek arrisku taldeekin du zerikusia... Azken urteotan, gizartearen lortu dugu hil eta zauritutako gazteen kopurua pixkanaka murriztea, baina lanean jarraitu behar dugu, joera horri jarraipena emateko.

Hemen aintzat hartuko dugun hirugarren xede-helburuak lotura du Euskal Autonomia Erkidegoan mugikortasun seguru eta iraunkorra sustatzearekin. Horretarako,

Plan Estrategikoan jasotakoaren arabera, «euskal gizartearen, segurtasunaren eta mugikortasunaren arloan aldaketa kulturala gerta dadin lagundu behar da» Hau da, gizarte eredu bat lortu behar dugu, zeinetan mugikortasuna baketsuagoa, orekatuagoa eta iraunkorragoa izango den, horrek bermatuko baitu joan-etorriak seguruak eta, era berean, eraginkorrak izatea... Baina hori, jakingo duzun bezala, ez da soilik gobernuaren lana... Hori bezalako aldaketa kulturala egiteko prozesua luzea eta zaila da, baina bide onean ari gara...

Azkenik, zuri parte hartzeko aukera eman-go dizun xede-helburua da «gizarteko eragileen esku-hartzea sustatzea, batera lan egin dezaten eta trafiko istripuak prebenitzeko programak egitera edo laguntzera engai daitezela».

Horregatik, laguntza eskatu nahi dizugu. Zuk eta guk helburu berak ditugula uste dugulako. Pertsonen segurtasunak eta planetaren iraunkortasunak kezkatzen zaituelako, eta zuk ere oinez zein askotariko ibilgailuetan joan-etorri sostengagarri iraunkor eta seguruagoak sustatzea nahi duzulako. Mugikortasunaren erabiltzaile aktibo izateaz gain, hezitzaile ere bazarela dakigulako. Hori dela eta, gure gogokide eta lankide izatea eskatzen dizugu.



Eta zer zerikusi du horrek aisialdiko hezkuntzarekin?

Eta, beharbada, zeure buruari galdetuko diozu ea zer daukan ikusteko horrek guztiak aisialdiko hezkuntzarekin...

Ondo dakizunez, aisialdiko hezkuntza ez da hezkuntza informala; nahita egindako hezkuntza da, balio partekatu batzuk oinarri dituen heziketa eman nahi duena.

Egia da, lehenik eta behin, familiak hartu behar duela haurren bide hezkuntzaren gaineke ardura. Egia da, orobat, zenbaitetan, helduok kontraesankorrak garela, alegia, gauza bat pentsatu eta beste bat egiten dugula eta, batzuetan, familian «ez dugula astirik izaten» arlo esanguratsu eta garrantzitsuetan modu sistemati-koan esku hartzeko; gure seme-alaben segurtasunean, esate baterako.

Egia da, halaber, eskolak hartzen duela bide hezkuntzaren ardura. Eskolak, baina, hezkuntzarekin engaiatuta dagoen arren, ez du denborarik behar beste garatzeko «...-rako hezkuntza» guztiak, besteak beste, bide hezkuntza. Eskolak curriculum itxia du, hezkuntza formalaren sistemari hala baitagokio.

Aisialdia da, berez, hezkuntza ez-formalaren arloa. Arlo horretan, ez da inongo curriculumen presiorik izaten, baina

izaten da, bai, hezteko gogoia, asmoa, sistema bat eta behar bezalako antolaketa.

Aisialdiko begirale gehienok, boluntario zein profesionalok, gazteak zarete, eta gai izaten zarete haur eta gazteekin ondo moldatzeko, erraz gainera. Horren bidez, bi eragin lortzen dira: batetik, zuen eredu, zuen ideiak, errazago iristen zaizkie zuekin izaten diren haur eta gazteei. Bestetik, irakastearekin batera, ikasi ere egiten duzue. Guri, Trafiko Zuzendaritzakooi, ikaragarri interesatzen zaigu eginkizun bikoitz hori; izan ere, haurrei seguruago ibiltzen eta arduratsuago izaten laguntzen diezue eta, horrekin batera, gazteei egiten dituzten hautaketa arriskutsuez ohartzen laguntzen diezue.

Gure ustez, aisialdiko hezkuntza esparru abantailatsua da mugikortasun segurua lantzeko, hainbat arrazoi direla eta:

- Hezkuntza hori «ez formala» denez, curriculum irekia du. Aukera ematen du ahalegin handiagoa egiteko balioak helarazteko, ezagutza helarazteko baino.
- Arlo horretako jarduerak, maiz, aire zabalean egiten dira, eta berekin dakarte kale eta errepideetan ibili beharra, taldean, oinez edota bizikletaz.

- Arlo horretako jarduerak eragina dute gizarteko biztanle gazteengan (haurrak, nerabeak eta gazteak). Gogoan izan dezagun gazteak direla arrisku handienaren pean daudenak.
- Hezitzaileak gazteak izan ohi dira, eta arrisku adinean izaten dira horiek ere; beraz, hezitzaileak sentiberatuz gero, eragin biderkatzailea lortuko da.

Uste osoa dugu mugikortasun seguru-rako hezkuntza, gure bideetan heriotza goiztiarrak prebenitzeko ez ezik, lagun-garria dela gazteentzat ere, arriskua bidelagun dutela bizitzen jakiteko beharrezko oreka eta ongizatea bila dezaten eta, erabakiak hartzeko orduan, beren eta ingurukoen segurtasuna lehenets dezaten.

Ikusiko duzun bezala, gure eredu pedagogikoak horixe du helburu: oinarri izatea sentikortzeko, arriskuaz jabetzeko.



Mugikortasun segururako gaitasunen eredua.

Orain arte, pare bat kontu utzi ditugu argi:

- Trafiko istripuek guztiongan dutela eragina, eta guztiok dugula trafiko istripuren bat izateko aukera, batez ere gazteek eta bideetan gehien ibiltzen direnek; besteak beste, aisialdiko hezkuntzan diharduen jendeak.
- Gai hori hezkuntza ez formalean ere landu behar dela.

Jarraian, jendeak zergatik izaten dituen istripuak aztertzen saiatuko gara.

Pertsona: alderdi gako prebentzioan


Honako galdera hau egiten diogu geure buruari: nola saihestu trafiko istripuak? Bistan denez, erantzuna ez da erraza, eta ez dago istripuak berak bakarrik saihesten dituen ezer.

Trafiko istripuetan (eta, beraz, istripuen prebentzioan) hiru elementu edo alderdi izaten dira beti tartean: bidea, ibilgailua eta pertsona. Bide segurtasuneko triangelu deritzo horri.

Azterlanek erakutsi dutenez, istripu gehien oinarrian giza faktorea dago.

IEZrk ez du istripurik izan nahi baina, batzuetan, arrisku handia dakarten jokabideak izaten ditugu.

Giza faktorearen ikuspegitik, prebentzioa jokabideetat jotzen da; arriskutsu izan daitezkeela hautematen diren egoerak saihesteko edo, baldin arriskua errealitate bihurtzen bada, arrisku horren ondorioak -kalteak- txikiagotu daitezkeela ziurtatuko duten jokabideak izateko portaera dela esaten da.



Noiz eta nola ikasi prebenitzen

Prebenitzea gizakion berezko egintza da, eta ekintza batek izan ditzakeen ondorio negatiboak irudikatzean (aurrea hartzea) eta ondorioak saihesteko zerbait egitean datza. Haurtzaroan ikasten dugu prebenitzen, hori egia da; hala ere, ez dugu modu sistematikoan egiten. Ez da erraza prebenitzen ikastea eta egiten dugunaren ondorioez jabetzea. Bide segurtasuneko prebentzioa da, beharbada, irakats daitekeen lehenengotako «prebentzioa», prebentzio horren ondorio fisikoak oso agerikoak eta frogagarriak direlako. Horrexegatik, aisialdiko hezkuntza arlo abantailatsua da bide segurtasuna indartzeko.

Garrantzitsua da adin bakoitzari datxekion arriskuak prebenitzen ikastea eta prebentzio lana haurtzaroan hastea. Helduarora arte itxaronez gero, ziur asko beranduegi izango da.


Baina... nola irakats dezakegu «prebenitzen»?

Prebentzioa bi eremutan egiten da: prestakuntzaren eremuan eta ekintza edo errealitatearenean.

- Prebentzioa gauza dadin, pertsonak arriskua ezagutu behar du. **Arriskua ezagutzea** informazio soiletik harago joatea da.

- Hala ere, arriskua ezagutzea ez da nahikoa arrisku hori saihesteko; hauteman ere egin behar da. Lortu behar duguna da **arriskua hautematea** arriskua gertu dugunean, benetako espazioetan, pertsonen metatutako esperientzian eta gela barruko zein gelatik kanpoko esperimentazioan.
- Baina hautematea ere ez da nahikoa. Pertsonak arriskua saihestu nahi izatea ere beharrezkoa da. Batzuetan, jakin badakigu arriskua hor dagoela, hautematen dugu, baina, hala ere, arrisku portaerak izaten jarraitzen dugu. Halakoetan, jarrera da alderdi gakoa. Prebenitzeko, arriskua ezagutu eta hauteman behar dugu, baina ez hori bakarrik; batez ere, **arriskua saihesteko nahia** izan behar dugu.
- Azkenik, prebentzioa errealitatean bertan gauzatzen da. Gelan, errealitaterako prestatu baino ezin dugu egin. Horregatik, oso garrantzitsua da gelan, prestakuntzaren bitartez, ikasle bakoitzari beharrezko bultzada ematea jokabide seguru hori ekintzara, errealitatera eraman dezan.

Prebentzioaren eskema



Gure prebentzio eredua

Tradizioan, bide hezkuntza Lehen Hezkuntzara mugatuta izan da.

Hainbat urtetan zehar pentsatu izan dugu baldin haurrei zirkulazio seinaleak eta bidean ibiltzeko zenbait arau irakatsiz gero, helduaroan aplikatu eta errespeta-tuko lituzketela.

Denborarekin, baina, hori ez dela nahikoa egiaztatu dugu.

Bide kultura aldatu nahi badugu, mugikortasun segururako hezkuntzak zeharkakoa izan behar du, adin eta arlo guztietan. Bereziki, etapa batzuetan, zeinetan arriskuak hartzea denaren erdigunean dagoen —nerabezaroan, adibidez—; eta arriskuak hartzea edukiari lotuta dagoen arloetan, hala nola, aisialdiko hezkuntzan edo kirolean.

Zerbait jakiteak ez du esan nahi dakigun hori egingo dugunik. Prebentzio lana egitea ez da «autoeskola» bat eskala txikiagoan simulatzea, ez eta seinaleak azaltzea ere. Prebentzioak haratago joan behar du. Lortu behar dena zera da: bizipenei loturiko jarduerak sortzea, eta, horien bitartez, pertsona jakitun izatea mugitzeko dituen beharrek bideko zer arrisku dakarten.

Gure prebentzio eredua *Mugikortasun segururako hezkuntza. Gaitasunen gida izeneko dokumentuan jaso dugu*¹.



Gidaliburu horretan hezkuntza ibilbide osoa zehaztu da, eta ibilbide horren helburua honako galdera hauei erantzutea da: *zer, nola eta noiz hezi mugikortasun seguruan*.


Gidaliburuan, zenbait ezagutza, trebetasun eta jarrera zehaztu dira, pertsonak bizi osoan zehar trafiko istripuen ondorioak saihesteko edo murrizteko beharko dituztenak. Mugikortasun segururako hezkuntza proiektuak sortzeko asmoa duten EAEko erakunde publikoek edo pribatuek eta gizarteko eta hezkuntzako eragileek programazio didaktikoak errazago egin ditzaten diseinatu da baliabide hori.

Gidaliburuaren ardatz pertsona eta prebentzioa dira, eta beste arlo batzuetan ere erabil daiteke, baldin arriskua badago eta pertsonak erabakiak hartu behar baditu (etxeko istripuak, drogekin eta alkoholarekin gehiegikeriak, eta abar).



¹ Herrizaingo Saila (2008). *Mugikortasun Segururako Hezkuntza – Konpetentzien gida*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

Hezkuntza horren oinarri izango diren balioetan ikus dezakezu hori, adibidez:



Pertsona autonomo eta arduratsuak nahi ditugu, aurreikusteko gaitasuna dutenak. Pentsatuko dutenak, erabakiak beren kabuz hartuko dituztenak, baina baita zer egiten duten eta zergatik egiten duten jakitun direnak ere. Egiten dituzten hautaketen jakitun direnak, gizartearekin engaiatuak, pentsatzeko eta beraientzako etorkizuna aukeratzeko gai direnak.

Mugikortasun segururako oinarritzko zazpi gaitasun zehaztu dira gidaliburuan:

- Arreta.
- Zaugarritasunaren eta arriskuaren kontzientzia.
- Ingurunea aztertzea.
- Taldeko presioarekiko erresistentzia.
- Egokitzea eta malgutasuna.
- Neure burua eta nire emozioak kudeatzea.
- Bideari lotutako egoeretan estresa kudeatzea.

Arreta beste gaitasun guztietan izan beharreko gaitasuna da, eta, hein batean, gaian sartzeko beharrezko atea, beste faktore batzuekin batera. Arretarik gabe, beste gaitasunetako batek ere ez du balio.

Dena den, gaitasun bakoitza ulertzen laguntzeko, gaitasun bakoitza definitu dugu, eta bakoitzaren laburpen txikia gehitu dugu.

Definizioan, ekintza aditz batek pertsonak zer egiten duen azaltzen du, eta zenbait osagarrik ekintza zehazten dute. Laburpenaren bidez, gaitasunaren elementu nagusia galdera itxuran laburbildu da.



Arreta

DEFINIZIOA:

Egoera arriskutsuei aurea hartzeko behar bezalako kontzentrazio maila egokia erakustea, ernetasun maila egoeraren arabera egokituta.

LABURPENA:

Mantentzen al dut nahikoa arreta maila eta areagotzen al dut arrisku handiagoa izateko aukerak hautematen ditudanean?

Zaugarritasunaren eta arriskuaren kontzientzia

DEFINIZIOA:

Mugikortasunari lotutako egoeretan jasan daitekeen edo besteri egin dakiekeen kaltea edo kaltearen probabilitatea kontuan izatea.

LABURPENA:

Balioztatzen al ditut bideko nire egintzen ondorioak arrisku terminoetan?

Ingurunea aztertzea

DEFINIZIOA:

Inguruneari buruzko beharrezko informazioa modu interaktiboan aztertzea eta egoeretako bat balioestea aukerarik seguruena hartuta.

LABURPENA:

Nire erantzunak egokiak al dira inguratzen nauen ingurunerako?

Taldeko presioarekiko erresistentzia

DEFINIZIOA:

EZrbera irizpidearen arabera jardutea eta besteen eragina balioztatzea, norbere eta gainerakoen segurtasuna hobetsita.

LABURPENA:

Benetan nik erabakitzen al dut?

Egokitzea eta malgutasuna

DEFINIZIOA:

Bideko egoera ezberdinei erantzun desberdinak ematea, norbere edo testuinguruaren beharren arabera, horrek dakarren aldaketa onartuta.

LABURPENA:

Erraz egokitzen al naiz aldaketetara, barruko aldaketetara nahiz bide testuinguruaren aldaketetara?

Neure burua eta nire emozioak kudeatzea

DEFINIZIOA:

Norbere barne egoera aztertzea, horrek dakartzan arriskuak balioztatzea, eta arrisku horiek minimizatze aldera jardutea.

LABURPENA:

Jabetzen al naiz nola nagoen eta zer sentitzen dudanez unen honetan?

Bideari lotutako egoeretan estresa kudeatzea

DEFINIZIOA:


Presiopeko egoera iraunkorrak edo estimulu adierazgarri kopuru handiegia kontrolatzeko eta gainditzeko baliabideak izatea.

LABURPENA:

Konturatzen al naiz egoerak gainditu egingo nauela? Presio egoera arriskua areagotu gabe mantentzeko gai al naiz?

Ikusiko zenuen bezala, gure proposamen pedagogikoaren oinarria gaitasunak lantzea da. Horrek esan nahi du gure asmoa dela gauzak «eginez», «esperimentatuz» ikastea, eta ez soilik «transmitituz».

Gaitasunen atalean, ohartu bazara, ikusiko zenuen gure xedea honako hauek lortzea dela: pertsonak beren emozioez jabetzea; erabakiak beren kabuz hartzeko gai izatea eta taldeko presiopean ez jardutea; eta gai izatea inguruan gertatzen denaz ohartzeko, gertatzen den horretan izan daitekeen arriskua eta zaugarritasuna ikusteko (besteei egin diezaieketen eta norberak jasan dezakeen kaltea) eta erabaki seguruagoak hartzeko, bai norberarentzat bai besteentzat.



Aisialdiko mugikortasun segururako proposatutako jarduerak.

Atal honetan, mugikortasun segurua lantzeko zenbait jardura proposatu dira. Aisialdiko hezitzaileentzat dira, 6 urtetik 17 urtera bitarteko neska-mutilekin egiteko. Proposatu ditugun jardueren helburua da haur eta gazteen segurtasuna hobetzea, hirian zein errepidean.

Garrantzitsua iruditzen zaigu alderatzea bide hezkuntzaren aspaldiko ikuskerara (arauak eta seinaleak ezagutzean oinarritua) eta mugikortasun segururako hezkuntza ulertzeko modu berria (jokabideak eta gaitasunak ardatz dituena).

Jokabideei lotuago dagoen eta gizarte bidezkoagoa —guztioi aukera berdinak eskainiko dizkiguna eta seguruagoa— lortzeko kultura aldaketan eta gizartearen eraldaketan oinarrituta dagoen ikuskera berri horrekin dator bat hezkuntza ez formalaren funtsa.

Eusko Jaurlaritzako Trafiko Zuzendaritzaren Bide Hezkuntzako Plan Estrategikoaren asmoa da tartean diren sektoreetan esku hartzea, sektore horiek gai honekiko sentikorrago izan daitezen, gehiago ikas dezaten eta parte-hartze handiagoa izan dezaten.

Mugikortasun segururako hezkuntza. Gaitasunen gida izeneko dokumentuan jaso dugun prebentzio eredua erantzukizunean eta autonomian dago oinarrituta. Bi balio horiek hartu dira funtsezko gisa; aisialdiari loturiko elkarteek eta erakundeek ere landu ohi dituzte, hain zuzen, bi balio horiek. Gainera, aisialdi guneetan, maiz, arrisku egoerak izaten dira, halako egoeretan berezko izaten diren lasaitzeari eta ariketa fisikoari loturiko ezustekoak direla eta.

Aisialdiko askotariko behar eta egoerei erantzuna emateko, jarduerak honako hauen arabera egituratu ditugu: aisialdiko jardura motak eta hiru adin talde. Hiru jardura mota ezarri ditugu (adin talde guztietan agertuko dira):

— Irteerak hirian edo udalerrian.

Hirigunean egiten dira. Gertuko ingurunea edo interesgarria delako ikustea merezi duen udalerria ezagutzeari loturik daude. Egun osoko jarduerak izan ohi dira.


— **Txangoak edo ibilaldiak.** Landa bideetan eta errepideetan egiten dira. Batzuk egun batekoak izaten dira, baina, maiz, etxetik kanpo egiten dute lo, kanpin dendetan, udalekuetarako ostatuetan edo landetxeetan

— **Gelan edo jolastokian egin ohi diren jarduerak.** Joan-etorriak baino gehiago (parkeraino edo jardura egingo den tokiraino joan behar izaten da, batzuetan), jolas edo prestaketa jarduerak dira.




proposatutako jarduerak (3 urtetik 8 urtera bitarteko haurrentzat)

JARDUERA MOTA	IZENBURUA	EDUKIA	GAITASUNA	ADINA
Irteerak hirian	Turista estralurtarrak	Alde segurua eta alde ez segurua	Arreta. Egokitzea eta malgutasuna	6-8 urte
Txangoak edo ibilaldiak	Bideko sugea	Ezkerreko aldetik ibiltzea	Ingurunea aztertzea	3-8 urte
Gelako edo jolastokiko jarduerak	Oilo amaren bila	Zaurgarritasuna	Zaurgarritasunaren eta arriskuaren kontzientzia	6-8 urte
Gelako edo jolastokiko jarduerak	Beldurra, gure laguna	Beldurra: erne ibiltzen laguntzen duen emozioa	Neure burua eta nire emozioak kudeatzea	6-8 urte
Gelako edo jolastokiko jarduerak	Zer egiten dute adiskideek?	Taldearen eragina	Taldeko presioarekiko erresistentzia	6-8 urte
Gelako edo jolastokiko jarduerak	Pilotaren atzean	Arreta, arriskua egon daitekeenean	Arreta. Egokitzea eta malgutasuna	5-8 urte






proposatutako jarduerak (8 urtetik 14 urtera bitarteko haurrentzat)

JARDUERA MOTA	IZENBURUA	EDUKIA	GAITASUNA	ADINA
Irteerak hirian	Hiria deskubritzea	Seinaleek ohartarazten gaituzte	Arreta. Egokitzea eta malgutasuna	8-11 urte
Txangoak edo ibilaldiak	Besteek gu ikustea ala ez ikustea, hor dago koska	Besteek gu ikustea	Ingurunea aztertzea	8-14 urte
Gelako edo jolastokiko jarduerak	Ez dadila puska!	Planifikatutako babesa	Zaugarritasunaren eta arriskuaren kontzientzia	8-11 urte
Gelako edo jolastokiko jarduerak	Badakit zer sentitzen dudan	Emozioak	Neure burua eta nire emozioak kudeatzea	8-14 urte
Gelako edo jolastokiko jarduerak	Eta zer nahi dut nik?	Asertibitatea	Taldeko presioarekiko erresistentzia	12-14 urte
Gelako edo jolastokiko jarduerak	Begi itxi-ireki batean	Arreta eta portaera segurua	Arreta. Egokitzea eta malgutasuna	8-14 urte



proposatutako jarduerak (14 urtetik 17 urtera bitarteko neska-mutilentzat)

JARDUERA MOTA	IZENBURUA	EDUKIA	GAITASUNA	ADINA
Irteerak hirian	Bizikletaz hara eta hona	Bidegorrian nola ibili	Arreta. Egokitzea eta malgutasuna	14-17 urte
Gelako edo jolastokiko jarduerak	Bizikleta, eta zer gehiago?	Bizikletaz errepidean	Ingurunea aztertzea	14-17 urte
Gelako edo jolastokiko jarduerak	Balbeduna	Prebentzioa	Zaugarritasunaren eta arriskuaren kontzientzia	14-17 urte
Gelako edo jolastokiko jarduerak	Emozioetan pasieran	Oinarrizko emozioak	Neure burua eta nire emozioak kudeatzea	14-17 urte
Gelako edo jolastokiko jarduerak	Maite al nauzu?	Besteen onarpen beharra	Taldeko presioarekiko erresistentzia	14-17 urte
Gelako edo jolastokiko jarduerak	Ikusi, onartu eta, beraz, barneratzen dut	Arrisku objektiboa Hautematea / Onartzea	Zaugarritasunaren eta arriskuaren kontzientzia	14-17 urte




Jarduerak 3-8 urte



JARDUERA
MOTA:
Irteerak hirian.

6-8
urte

Turista estralurtarrak



EDUKIA:

Alde segurua eta alde ez segurua.

GAITASUNAK:

Arreta. Egokitzea eta malgutasuna.

METODOA:

Zuzenean behatzea: irteera herrian.

HELBURUAK:

- Herri edo hiriko alde segurua eta ez segurua identifikatzea.
- Seinaleak, argiak eta soinuak lotzea ohartarazpenarekin eta kontuz ibili beharrekin.
- Hainbat kolektiboren mugikortasunari buruz gogoeta egitea (minusbaliatuak, taldean ibiltzen diren haurrak eta abar).

NOLA EGIN:

Hirigunera iristen direnean, begiraleek espaziotik burofax bat jaso dutela esango die haurrei. Dirudienez, KROTLÖN izeneko zibilizazio estalurtar batek hirira joan nahi du, ea estalurtarren helmuga turistiko izateko baldintzak betetzen dituen ala ez ikusteko. Mezuan, estalurtarren deskripzioa ere eman dute:

Batzuk itsuak dira, beste batzuk gorrak, eta beste zenbaitek gurpilek ditu oinen lekuan. Ez dituzte ezagutzen gure zibilizazioko oinarritzko arauak, taldean ibiltzea dute gogoko, eta hankak dituztenek 6 hanka dituzte; hori dela eta, gizakiak baino motelago ibiltzen dira.

Bisita prestatzeko, herriko kaleetako segurtasunari buruzko txosten zehatz eta osoa eskatu digute. Txostena egiteko, begiraleek proposatuko dute herrian zehar ibilaldia egitea. Erosketak egiteko orgak (gurpildunak) eramango dituzte, eta honako hauek identifikatu beharko dituzte: batetik, alde lasai eta segurua, eta non ibil daitekeen astiro; eta, bestetik, alde arrakatsua, zaratatsuak eta gurpilekin ibiltzeko zail direnak.

Haurrek fitxa bana izango dute, espazioen behaketa laguntzeko (1. eranskina).

Ibilaldia egin eta gero, behaketa fitxak bateratuko dituzte, eta herriko alde

seguruen «mapa» jasoko duen horma irudi erraldoia egingo dute. Begiraleek mapa bidaliko diete estalurtarrei burofax bidez, eta eztabaidatuko dute ea, beren ustez, KROTLÖN zibilizazioa turismo egiten etorriko den ala ez. Alde segurua gehiago dira, ez segurua baino? Zailtasun handirik izan al dute orgarekin eta gurpilekin ibiltzeko? Gor eta itsuentzat ba al dago arriskurik kalean? Zein?

Amaitzeko, ondoriozta dezakegu herri eta hirietan honako gune hauek egon daitezkeela: oso alde segurua eta irisgarriak (espalo zabalak, semaforo bidez araututako bidegurutzeak, oinezkoen igarobide arrapaladunak eta abar), alde ez segurua (seinalerik gabeko errepideak, soinurik gabeko semaforoak, espalo estua eta abar) eta autoak eta oinezkoak batera ibiltzen diren aldeak, kontuz ibiltzea eskatzen dutenak, hala nola, oinezkoen igarobideak, ibilgailuentzako errepidez inguratutako plazak eta arrapalarik gabeko espaloak.

Orobat, gogoeta egin daiteke ea nola den egiten diren joan-etorriak errazen: bi hankarekin, seirekin, aulki gurpildunean, bakarrik edo taldean. Eta gaitasun desberdinak dituzten jendea kalean joan-etorriak nola egiten dituen eztabaida dezakete.

1 erans- kina

ESPALOI ZABALA	BAI	EZ
Argiak		
Zarata		
Gurpilekin ibil daiteke?		
Harrapa gaitzakete?		
Taldean ibil daiteke?		
Zirkulazio seinaleak		
Segurua da?		

ERREPIDEA	BAI	EZ
Argiak		
Zarata		
Gurpilekin ibil daiteke?		
Harrapa gaitzakete?		
Taldean ibil daiteke?		
Zirkulazio seinaleak		
Segurua da?		

PLAZA	BAI	EZ
Argiak		
Zarata		
Gurpilekin ibil daiteke?		
Harrapa gaitzakete?		
Taldean ibil daiteke?		
Zirkulazio seinaleak		
Segurua da?		

OINEZKOENTZAKO GUNEA	BAI	EZ
Argiak		
Zarata		
Gurpilekin ibil daiteke?		
Harrapa gaitzakete?		
Taldean ibil daiteke?		
Zirkulazio seinaleak		
Segurua da?		

BIDEGURUTZEA	BAI	EZ
Argiak		
Zarata		
Gurpilekin ibil daiteke?		
Harrapa gaitzakete?		
Taldean ibil daiteke?		
Zirkulazio seinaleak		
Segurua da?		

ESPALOI ESTUA	BAI	EZ
Argiak		
Zarata		
Gurpilekin ibil daiteke?		
Harrapa gaitzakete?		
Taldean ibil daiteke?		
Zirkulazio seinaleak		
Segurua da?		

...	BAI	EZ
Argiak		
Zarata		
Gurpilekin ibil daiteke?		
Harrapa gaitzakete?		
Taldean ibil daiteke?		
Zirkulazio seinaleak		
Segurua da?		



Bideko Sugea

3-8
urte



EDUKIA:

Ezkerreko aldetik ibiltzea.

GAITASUNAK:

Ingurunea aztertzea.

METODOA:

Txango edo ibilaldi bat egitean, alde segururen batean egiteko ariketa

HELBURUAK:

- Errepidean autoz gabiltzanean aurki ditzakegun arriskuez jabetzea.
- Errepidean oinez eta taldean gabiltzanerako egoki diren prozedurak identifikatzea.

NOLA EGIN:

Txango edo ibilaldian, basoan, jenderik ibiltzen ez den bide baten ondoan biribilean eserita, begiraleek Ssasi sugearen istorioa azalduko dute.

Ssasi sugea errepideetako areketan bizi zen. Gauza zoragarriak pasatu zitzaizkion bizitzan, baina ezbeharrak eta zoritxarrak ere bizi izan zituen. Duela gutxi gertatu zitzaion ezbehar bat: Anakleta izeba galdu zuen. Izeba gor samarra zen; ur pixka bat edateko iturri baten bila zebilen, ahopeka kantuka eta despistatuta, errepidearen eskuineko aldetik, eta errepidearen ertza eta areka hartzen zituen traktoreak zapaldu zuen. Gertaera izugarri haren ondoren, Ssasik erabaki zuen arriskuak saihesteko neurri batzuk hartuko zituela, areketatik gertu herrestaka zebilenean. Jakin nahi duzu zer neurri hartu zituen?

Zutik jarriko dira guztiak, lerro bakarrean. Begiralea lerroaren buruan jarriko da, eta jarraitu beharreko aginduak esango ditu; sugearen jokabidea imitatuko dute:

1. Ssasi basoan zehar sigi-saga zebilen (lerroa aurrerantz mugituko da, sigi-saga), eta bidera iritsi zen, bat-batean. Azkar, bata bestearen atzean! Zuzen-zuzen, izeba Anakletari jazo zitzaiona ez dakigun gerta (aurrerantz jarraituko dute).
2. Eta berriz basora joango gara (bidetik irten), han nahieran egin baitezakegu

sigi-saga (lerroak berriz egingo du aurrera, sigi-saga), eta zabal-zabal ibili (besoak eta hankak luzatu). Baina kontuz, bidean gaude eta berriro: lerroan, besoak eta hankak batuta.

3. Eta berriz basora, zein ederki (lerroa berriz ibiliko da sigi-saga), eta han eroso-eroso luzatu besoak eta hankak. Kontuz, baina; bide beldurgarriara iritsi gara berriz (begiraleak abiada motelduko du), eta haurrei honako hau gogoraraziko die: lerro zuzenean, besoak eta hankak batuta, eta isil-isilik, errepidean inor datorren ala ez entzun ahal izateko. Gogorarazi Anakleta izeba gor samarra zela, eta ahopeka kantuan eta despistatuta zebilela ezbeharra gertatu zenean. Lerroak aurrera egingo du, metro pare bat.

4. Eta berriz basoan gara, zein ongi (lerroa sigi-saga ibiliko da berriz), eta zabal-zabal eta eroso gaude, besoak eta hankak luzatuta, ahopeka kantuan eta despistatuta. Lerroak azkarrago egingo du aurrera zenbait metrotan (garrantzitsua da hori inor ibiltzen ez den bideren batean egitea). Adi, berriz iritsi gara bidera eta; badakizue: lerro zuzenean, besoak eta hankak batuta, isil-isilik ea errepidean inor datorren entzuteko eta ezkerreko aldean, bazterretik gertu. Ezagutzen duzue eta Anakleta izebaren istorioa, gaixoa! Ez zuen traktorea ikusi, eskuinetik zihoan eta, ezkerretik joan beharrean!



6-8
urte

Oilo amaren Bila



EDUKIA:

Zaugarritasuna.

GAITASUNAK:

Zaugarritasunaren eta arriskuaren kontzientzia.

METODOA:

Jolas analogikoa eta ondorioak.

ONENA TALDE HANDIAN EGITEA DA.

HELBURUAK:

- Galduz gero, lasai egon eta arretaz ibili beharraz gogoeta egitea.
- Seguru sentitzen ez naizenean sortzen zaizkidan emozioei antzematea.
- Kalteren bat jasan dezakegula ohartzea.

NOLA EGIN:

Eremu, gela edo jolastoki zabal batean, jolasa egingo da; eta, gero, zenbait galdera egingo dira, ondorioak ateratzeko.

Begiraleak eranskailuak prestatuko ditu, ondoko eskeman adierazi bezala:

- ◆ Eranskailu hori bat, erronboide formakoa (karratu okertua); azeria irudikatuko du.
- Eranskailu hori bat, biribila;
1. oilo ama izango da.
- Eranskailu hori bat, karratua;
2. oilo ama izango da.
- ▲ Eranskailu hori bat, hirukia;
3. oilo ama izango da.
- *Aurreko hiru forma horietako*
- *eranskailu horiak, parte-*
- ▲ *hartzaile beste eranskailu.*

Begiraleak eranskailu bana itsatsiko die hurrei bekokian, ausaz. Txitak direnez ezin dute hitz egin, eta ezin diete elkarri esan zer nolako eranskailua duten bekokian; beraz, inork ez du jakingo zer nolako eranskailua duen.

Jolasaren helburua azalduko die begiraleak: txitek oilo ama aurkitu behar dute, eta oilo amak, bere txita guztiak biltzen dituenean, txitategira eramango ditu (jolastokiko edo gelako txoko bat). Baina, kontuz: azeria oilo ama jantzi da, eta txitak jan nahi ditu.

Txitek begiak estaliko dituzte (txitek, jaiotzen direnean, ez dute ikusmen handirik izaten), eta ama bilatu beharko dute, entzumena eta ukimena erabiliz. Begiraleek oiloak (eta azeria) jolastokiaren bazter batera eramango dituzte, eta zer nolako eranskailua duten eta, beraz, jolasean zer eginkizun izango duten azalduko diete. Oiloek eta azeriak begiak irekita izango dituzte.




Txitak, begiak estalita, jolastokian ibiliko dira. Oiloak eta azeria ere oinez ibiliko dira. Txita batek beste parte-hartzailearen batekin topo egiten duenean, eskua luzatuko dio, atzamarrekin ukituko du eta honako hau esango dio: txio-txio. Beste pertsona hori ere txita baldin bada, hark ere «txio-txio» esango dio, eta oinez jarraituko dute biek. Baldin beste pertsona hori oiloa bada eta forma bereko eranskailua badu, edo azeria bada, honako hau erantzungo dio: txio-txia!

Azeria izan bada, txita kanporatuko da, eta begietatik estalkia kendu ahal izango du. Berari dagokion oilo ama bada, begietatik estalkia kenduko du eta amarekin batera ibiliko da aurrerantz, lerro zuzenean.

Txita gehien hartzen eta jolastokiko edo gelako txokora eramaten dituen oilo ama izango da garaile.

Jolasa bukatzen denean, hurrei galdetu behar die begiraleak ea zer gertatu den jolasten aritu diren bitartean:

- Nola sentitu dira egokitu zaien rola egitean?
- Noiz sentitu dira seguruago?
- Sentitu al du inork galduta edo bakarrik zegoela?
- Zer arrisku izan ditu jolasak?





6-8
urte

Beldurra, gure laguna



EDUKIA:

Beldurra: erne ibiltzen laguntzen duen emozioa.

GAITASUNAK:

Neure burua eta nire emozioak kudeatzea.

METODOA:

Ipuina, ipuina osatzeko jarduerak (ipuina bukatzeko hainbat amaiera edo munstroaren marrazkia) eta ondorioak ateratzeko baterako solasaldia.

HELBURUAK:

- Beldurra eragiten duten egoera edo jarduerak batzuk identifikatzea.
- Beldurra alerta baliagarria dela ohartzea.
- Beldurra sorrarazten duten egoerak kudeatzeko moduak ezagutzea.

NOLA EGIN:

Biribilean eserita, begiraleak Hektorren ipuina azalduko du, antzetzuta. Ipuina azaldu eta gero, haurrak taldeka jarri eta istoriorako beste amaiera batzuk pentsa ditzatela esango die. Taldeen barruan, beste taldetxo batek ipuineko munstroaren marrazkia egin dezake. Amaieran, marrazkiak paretetan jarriko dira zintzilik, talde bakoitzak bere amaiera kontatuko du eta, gero, hitz egingo dute, zenbait galdera abiapuntutzat hartuta (1. eranskina).

Ezagutzen al duzue ezin sinetsizko istorio hau, nire adiskide Hektorrena, nola beldur zion beldur ez izateari? Inoiz entzun ez baduzue, nik azalduko dizuet. Jar zaitezte eroso. Hektorrek lau urte zituen ezagutu nuenean. Haurra zen eta, beraz, egun osoan jolas eta jolas ibiltzea zuen gogoko. Horregatik, harritu egin ninduen, duela egun batzuk, nekatuta, energiarik gabe eta jolaserako gogo handirik ez zuela ikusteak. Hurbildu nintzaion, eta zera galdetu nion, isil misilka: «Hektor, zer duzu?». Galdera bukatu aurretik, Hektorrek negarrari eman zion. «Zer dudan jakin nahi al duzu?» - esan zuen negar zotinka. «Bai, noski!»- eranzun nion. Eta istorio zoragarria kontatu zidan; hona hemen: «Astebete da ia lorik egin ez dudala. Gauero, ohean lotarako prest nengoenean, zaratak entzuten nituen ohe azpian, eta itzal bat ikusten nuen, nire zapatiletarantz. Gero eta beldur handiagoa nuen; azkenean, hain zen

handia beldurra, itzalari aurre egitea erabaki bainuen. Birritan pentsatu gabe, ohetik jauzi egin eta ohe azpira begiratu nuen azkar-azkar. Ikusi nuena hain izan zen itsusia, ezen ipurdiz gora erori bainintzen. Ohe azpian munstro bat zegoen! Munstroak atzera egin zuen urrats bat, bere koloretako ileei heldu zien garroez eta... negarrari eman zion! Egoera harrigarria zen oso; ikara eta beldurra ere joan zitzaizkidan. Eta zenbat eta gehiago lasaitu ni, orduan eta gehiago egiten zuen negar munstroak. Adorez bete eta munstroarekin hizketan hasi nintzen. Zergatik ari zen negarrez eta zer egiten zuen han galdetu nion. Ohe azpian bizi zela erantzun zidan, eta, beldurraren munstroa zenez, haurrak izutzea zela bere eginkizuna azaldu zidan. Negarrez ari zen, ikusi zuelako, ez ninduen izutu, ez zuela lortuko ni beldur izatea; eta hori oso-oso arriskutsua zela esan zidan.»

Hektorrek ez zuen ezer ulertu; nola izan daiteke arriskutsua beldurrari beldurrik ez izatea! Hitz eta pitz jardun zuten eta, azkenean, adiskide egin ziren. Horri esker, Hektorrek ulertu zuen beldurrak arrisku egoeretan geure burua babesten laguntzen digula eta, batzuetan, beldur pixka bat izateak laguntzen duela erantzun egokia izaten. Baina munstroaren zeregina beldurra sorraraztea bazen, eta Hektor ez bazen haren beldur, zer egin zezaketen aurrerantzean ere adiskide izateko?

HEKTORREN IPUINARI LOTURIKO GALDERAK

1. JARDUERA.

Talde txikietan, idatzi ipuinaren amaierak. Zer egin dezakete Hektorren eta beldurraren munstroak, aurrerantzean ere adiskide izateko?

2. JARDUERA.

Marraztu beldurraren munstroa paper handi batean.

BELDURRARI BURUZKO SOLASALDIRAKO GIDA

- Zeren beldur zara? Zer pertsonaiari diozu beldurra? Egunerokotasuneko zein egoerak beldurtzen zaitu?
- Nola sentitzen zara bakarrik zaudenean? Nola sentitzen zara beldur zarenean?
- Zer egiten duzu beldurrik ez izateko?
- Beldurra emango lizueke kalean bakarrik ibiltzeak? Zergatik?
- Zer egingo zenuke leku batetik bestera bakarrik joan beharko bazenu?

Amaitzeko, honako ideia hau azal daiteke: guztiok diogula beldurra gauzaren bati, eta horrek laguntzen digula, zoroen pare ibili ordez, kontuz eta erne ibiltzen, minik ez hartzeko. Eta garrantzitsua da lasai egotea; ausart itxurak egitea ez da beti aukerarik onena izaten. Lasai egoteaz gain, komeni da zenbait babes neurri hartzea edo ekintza batzuk egitea, seguru ibiltzen lagun diezaguten, hala nola: bizi-bizi ibiltzea (lasterka ez, baina behin eta berriz gelditzen ere ez), kalean dabiltzan autoekin eta pertsonekin erne ibiltzea, espaloitik ibiltzea, kaleak seinalizatutako tokietan zeharkatzea eta abar.



6-8
urte

Zer egiten dute adiskideek?



EDUKIA:

Taldearen eragina.

GAITASUNAK:

Taldeko presioarekiko erresistentzia.

METODOA:

Jolasa eta kasuen azterketak.

HELBURUAK:

- Besteen ekintzek, batzuetan, gure ekintzetan eragina izaten dutela ohartzea.
- Segurtasuna erabakiak hartzeko irizpidetzat jotzea eta balioestea.

NOLA EGIN:

Lurrean biribilean eseriko dira haurrak. Banaka eta txandaka, haurrak biribilaren erdian jarriko dira, eta gogoko duten zerbait egin beharko dute, edo oso ondo egiten duten zerbait, edo ikaskideekin partekatu nahi duten ekintzaren bat (dantzatu, abesti bat abestu, itzulipurdi bat, txiste bat kontatu eta abar). «Era librean» egingo duten ekintza bakoitza bukatutakoan, hurrek txalo egingo diote kasuan kasuko haurrari, eta begiraleak honako galdera hauek egingo dizkio:

- Zergatik aukeratu duzu jarduera/ekintza hori?
- Hasiera-hasieratik argi izan duzu hori egingo zenuela, edo zure aurretik irten den ikaskideren batek egin duenak inspiratu zaitu?
- Benetan egin nahi zenuena egin duzu?
- Zure ustez, erraza al da desberdina izatea edo ideia berdingabe bat izatea?
- Zure ustez, balio al du beste pertsona batek egin duena kopiatzeak?
- Gertatu al zaizu inoiz besteren batek egin duena egin eta, ondorioz, amaiera okerra izan duten gauzak egin izana?

Haur guztiek egin dutenean ikaskideentzako ekintzaren bat, begiraleak galdetuko die ea inork azaldu nahi duen taldeari jarraikiz egindako zerbaiten ondorioz errieta egin dieten edo gaizki sentitu diren aldiren bat.

Inork halakorik azaldu nahi ez badu, edo beraiei gertatutakorik aipatzen ez badute, ondoko kasua aurkez daiteke, eta bukaerako galderak egin daitezke:

Udako arratsalde batean, Nerea eta adiskideak bizi diren lekutik gertu dagoen lursail batean

elkartu dira, bizikleta eta guzti. Lursaila zuloz beteta dago; aldapa gogorrek daude gora eta behera, bai eta azken ekaitzak utzitako ur putzuak ere. Itziar, Nerearen adiskide minenetakoa, kaskoa eramatera behartu dute gurasoek, etxetik irten denean. Orain, baina, kaskoa lurrean utzi du, eta ziztu bizian ekin dio inprobisatutako zirkuitua egiteari. Azken behe-ranzko maldak ibilgailuz jositako errepideko erreia-ertzen ertz-ertzean du amaiera. Handik, Itziarrek adiskideei dei egin die, eta berak egin duen ibilbidea egin dezaten animatu ditu. Nereak adiskideei begiratu die; haiek Itziarrek egin duena egin dezan adoretu dute. Nereak, baina, izerditan ditu eskuak, eta bihotz taupadak gero eta azkarrago. «Ez dut nahi hainbeste ibilgailu dabil-tzan errepide horren erdian bukatu; eta ez dut nahi, inolaz ere, erortzea eta gurasoek jakitea ez dudala kaskoa erabili», pentsatu du. Itziarrek berriz esan die: «Zeren zain zaudete? Aparta da!» Une horretan bertan, Nereak abiadura bizian ekin dio, eta beheranzko aldaparen bukaerara iritsi denean balaztari eman dio gogor. Horri esker, ziztuan zetorren auto bat jotzetik doi-doi zentimetro batzuetara geratu da, eta autoak bideari ekin dio azkar, klaxon hots ozenarekin batera. Itziarrek, aurpe-gia itxuragabetuta, Nereari begiratu dio; Nerea zurbil-zurbil dago, dardarka, errepide ertzean.

Egin daitezkeen galderak:

- Zure ustez, Nereak egin nahi al zuen ibilbidea?
- Zure ustez, zergatik kendu du kaskoa?
- Zure ustez, zergatik egin du ibilbidea bizikleta gainean?
- Zure ustez, nola sentituko da Nerea orain? Eta Itziar?
- Zure ustez, zer egin behar zuen Nereak?



5-8
urte

Pilotaren atzean



EDUKIA:

Arreta, arriskua egon daitekeenean.

GAITASUNAK:

Arreta. Egokitzea eta malgutasuna.

METODOA:

Jolasa, pilota txikiak erabiliz (tenisekoak edo goma bigunezkoak).

HELBURUAK:

- Arriskua eta haren ondorioak hautematea.
- Pilotaren atzean korrika hasiera eramaten gaituen bulkada esperimentatzea.

NOLA EGIN:

Jolastokiko zoruan, biribil zabal bat marraztu behar da, klarionaz edo soka bat lurrean jarrita. Haurrei pilota eta lepoko bana emango zaie (lepokoa egiteko, kartoi mehe batean hiru eranskailu itsatsiko dira, eta korda mehea jarriko zaio, itsatsita), eta biribil barrura sartu behar dira. Begiraleak hirura arte zenbatzen duenean, haurrek gorantz jaurtiko dute pilota, eta bakoitzak pilota bat hartzen saiatu beharko du, biribiletik irten gabe. Lehen izandako pilota bera har dezakete, edo beste edozein.

Pilotak jaurti ondoren pilotarik hartzen ez duenari hiru eranskailuetako bat kenduko zaio, eta pegatinarik gabe geratzen dena jolasetik kanporatuko da.

Begiraleek biribiletik kanpo geratu diren pilotak barrura bota ditzakete berriz. Pilotak gogorrago eta gorago jaurti ditzaten ere iradoki diezaieke begiraleak.

Jolasa hainbat aldiz egingo dute, biribilean haur gutxi batzuk geratu arte. Horiek izango dira irabazleak. Jolasa bukatu eta gero, egindako biribilaren inguruan eseriko dira, eta jolasari buruz hitz egingo dute. Horrekin batera, jolasak eta edozein toki edo egoeratan pilotaren atzean korrika joateak duten analogia ere aipatu beharko dute begiraleek.

Jolasari buruz hitz egiteko proposatzen ditugun galderak:

- Galdu al duzu pilotarik, jaurtitako aldiren batean?
- Biribiletik kanpora joan da, ala beste pertsonaren batek hartu du?
- Zer trikimailu erabili duzu kanporatua ez izateko?
- Zer egin duzu pilota berreskuratzeke?
- Pilota berreskuratzeke zeure burua arriskuan jarri duzula uste al duzu?
- Zer egin duzu edo zer egin zenezakeen arriskua saihesteko?

Jolasa molda daiteke, gelan egin ahal izateko: haur guztiek pilota aldatu behar dute, gutxienez hiru aldiz hiru segundo baino gutxiagoan. Baldin pilotaren bat biribiletik kanpora erortzen bada, ezin da haren bila joan.

Jarduerak
8-14 urte



8-11
urte


Hiria des- kubritzea

NOLA EGIN:

Haurrak bost taldetan banatuko dira, eta taldeei gutun azal bana emango die begiraleak. Gutun azalen barruan lehenengo arrastoa egongo da (1. *eranskina*). Taldeek ibilbide desberdinak izango dituzte, eta azken arrastoa berdina izango da guztientzat (arrasto horrek jolasa hasi eta bukatuko den plazan edo zelaigunean bilduko ditu talde guztiak). Taldeak hirian barrena ibili behar dira adi-adi, eta begiraleek aurrez utzitako arrastoak aurkitu beharko dituzte. Arrastoak aurkitu ahala irakurri behar dituzte, eta

ibilbideko koadernotxoa bete behar dute (2. *eranskina*). Lankidetzazko jolasa da; beraz, ez dute zertan korrika ibili behar helburua betetzeko.

Plazan edo zelaigunean elkartzen direnean, ibilbideko koadernotxoetan idatzi dituzten erantzunak bateratuko dituzte, eta azalduko dute zer nolako jokabideak ikusi dituzten seinaleei lotuta. Zer ikusi dute? Pertsonak bete



EDUKIA:

Seinaleek ohartarazten gaituzte.

GAITASUNAK:

Arreta. Egokitzea eta malgutasuna.

METODOA:

Arrastoen jolasa hirian.

HELBURUAK:

- Zirkulazio seinaleen eginkizunaz ohartzea.
- Nola erabiltzen ditugun hausnartzea.

1. taldea

1. ARRASTOA

Bilatu debekua adierazten duen seinale bat.
Han aurkituko duzu hurrengo arrastoa.

2. ARRASTOA

Egiatzatu ea debeku seinaleak dioena betetzen duten oinezkoek eta ibilgailuek; idatzi ibilbideko koadernotxoan.
Bilatu argi berde eta biribil bat.

3. ARRASTOA

Egiatzatu ea argi berde biribilak adierazten duena betetzen duten oinezkoek eta ibilgailuek; idatzi ibilbideko koadernotxoan.
Bilatu bonbilla duen zutoin bat.

4. ARRASTOA

Egiatzatu ea bonbilla duen zutoina behar bezala dabilen; idatzi ibilbideko koadernotxoan.
Bilatu margolan bat zoruan.

5. ARRASTOA

Egiatzatu ea zoruko margolan marradunak adierazten duena betetzen duten oinezkoek eta ibilgailuek; idatzi ibilbideko koadernotxoan. Bilatu edari freskagarri baten kartel bat.

6. ARRASTOA

Egiatzatu ea jende asko dagoen tabernan; idatzi ibilbideko koadernotxoan.
Itzuli jolasa hasi duzuen tokira.

2. taldea

1. ARRASTOA

Bilatu argi berde eta
biribil bat.

2. ARRASTOA

Egiatzatu ea argi berde
biribilak adierazten duena
betetzen duten oinezkoek
eta ibilgailuek; idatzi
ibilbideko koadernotxoan.
Bilatu bonbilla duen
zutoin bat.

3. ARRASTOA

Egiatzatu ea bonbilla
duen zutoina behar bezala
dabilen; idatzi ibilbideko
koadernotxoan.
Bilatu margolan bat zoruan.

4. ARRASTOA

Egiatzatu ea zoruko margo-
lan marradunak adierazten
duena betetzen duten
oinezkoek eta ibilgailuek;
idatzi ibilbideko koaderno-
txoan. Bilatu edari freskaga-
rri baten kartel bat.

5. ARRASTOA

Egiatzatu ea jende asko
dagoen tabernan; idatzi
ibilbideko koadernotxoan.
Bilatu debekua adierazten
duen seinale bat.

6. ARRASTOA

Egiatzatu ea debeku
seinaleak dioena betetzen
duten oinezkoek eta
ibilgailuek; idatzi ibilbideko
koadernotxoan.
Itzuli jolasa hasi
duzuen tokira.

3. taldea

1. ARRASTOA

Bilatu bonbilla duen
zutoin bat.

2. ARRASTOA

Egiaztatu ea bonbilla
duen zutoina behar bezala
dabilen; idatzi ibilbideko
koadernotxoan.
Bilatu margolan bat zoruan.

3. ARRASTOA

Egiaztatu ea zoruko margo-
lan marradunak adierazten
duena betetzen duten
oinezkoek eta ibilgailuek;
idatzi ibilbideko koaderno-
txoan. Bilatu edari freskaga-
rri baten kartel bat.

4. ARRASTOA

Egiaztatu ea jende asko
dagoen tabernan; idatzi
ibilbideko koadernotxoan.
Bilatu debekua adierazten
duen seinale bat.

5. ARRASTOA

Egiaztatu ea debeku seina-
leak dioena betetzen duten
oinezkoek eta ibilgailuek;
idatzi ibilbideko koaderno-
txoan. Bilatu argi berde eta
biribil bat.

6. ARRASTOA

Egiaztatu ea argi berde
biribilak adierazten duena
betetzen duten oinezkoek
eta ibilgailuek; idatzi
ibilbideko koadernotxoan.
Bilatu bonbilla duen
zutoin bat. Itzuli jolasa
hasi duzuen tokira.

4. taldea

1. ARRASTOA

Bilatu margolan
marraduna zoruan.

2. ARRASTOA

Egiaztatu ea zoruko margo-
lan marradunak adierazten
duena betetzen duten
oinezkoek eta ibilgailuek;
idatzi ibilbideko koaderno-
txoan. Bilatu edari freskaga-
rri baten kartel bat.

3. ARRASTOA

Egiaztatu ea jende asko
dagoen tabernan; idatzi
ibilbideko koadernotxoan.
Bilatu debekua adierazten
duen seinale bat.

4. ARRASTOA

Egiaztatu ea debeku
seinaleak dioena betetzen
duten oinezkoek eta
ibilgailuek; idatzi ibilbideko
koadernotxoan.
Bilatu argi berde
eta biribil bat.

5. ARRASTOA

Egiaztatu ea argi berde
biribilak adierazten duena
betetzen duten oinezkoek
eta ibilgailuek; idatzi
ibilbideko koadernotxoan.
Bilatu bonbilla duen
zutoin bat.

6. ARRASTOA

Egiaztatu ea bonbilla
duen zutoina behar bezala
dabilen; idatzi ibilbideko
koadernotxoan.
Bilatu margolan bat zoruan.
Itzuli jolasa hasi
duzuen tokira.

5. taldea

1. ARRASTOA

Bilatu edari freskagarri
baten kartel bat.

2. ARRASTOA

Egiaztatu ea jende asko
dagoen tabernan; idatzi
ibilbideko koadernotxoan.
Bilatu debekua adierazten
duen seinale bat.

3. ARRASTOA

Egiaztatu ea debeku
seinaleak dioena betetzen
duten oinezkoek eta
ibilgailuek; idatzi ibilbideko
koadernotxoan.
Bilatu argi berde eta
biribil bat.

4. ARRASTOA

Egiaztatu ea argi berde
biribilak adierazten duena
betetzen duten oinezkoek
eta ibilgailuek; idatzi
ibilbideko koadernotxoan.
Bilatu bonbilla duen
zutoin bat.

5. ARRASTOA

Egiaztatu ea bonbilla
duen zutoina behar bezala
dabilen; idatzi ibilbideko
koadernotxoan.
Bilatu margolan bat zoruan.

6. ARRASTOA

Egiaztatu ea zoruko margo-
lan marradunak adierazten
duena betetzen duten
oinezkoek eta ibilgailuek;
idatzi ibilbideko koadernotxoan. Itzuli jolasa hasi
duzuen tokira.



Ibilbideko koadernotxo

TALDEAREN IZENA:	BAI	EZ
1. arrastoa		
2. arrastoa		
3. arrastoa		
4. arrastoa		
5. arrastoa		
6. arrastoa		



8-14
urte

Besteek gu ikustea ala ez ikustea, hor dago koska



EDUKIA:

Besteek gu ikustea.

GAITASUNAK:

Ingurunea aztertzea.

METODOA:

Kanpoan eta gauez egiteko jolasa.

HELBURUAK:

- Mugikortasunean seguru ibiltzeko norberak ikusi behar duela eta besteek norbera ikusi behar dutela aintzat hartzea.
- Identifikatzea mugikortasuneko zein egoeretan den garrantzitsua besteek norbera ikustea.

NOLA EGIN:


Haurrak bi taldetan banatuko dira. Talde bata (zaindaria) etxearen edo aterpetxearen ateetan edo handik gertu geratuko da, eta beste taldeak (basoko taldea) atean egon beharko du jarraibideak noiz emango zain.

Etxean dagoen taldeak GERTU edo URRUTI oihuka dezake. Baldin GERTU oihukatzen badu, taldekideek 10era arte zenbatu beharko dute, begiak itxita dituztela. Tarte horretan, beste taldeko kideak ezkutatu dira, korrika. Zaindarien zenbaketa bukatzen dutenean, ezkutatuta dauden haur guztiak ikusten saiatu behar dute, baina soilik linternez argi eginda. Zaindarien lehenengo bost minutuetan ikusitako haurrak zaindarien taldera pasatuko dira.

Bost minutu igarotakoan, zaindarien ETXEA oihukatuko dute, eta guztiak etxera itzuliko dira. Zaindarien berriz hasiko dute jolasa; horretarako, GERTU edo URRUTI

egin beharko dute oihu. Baldin GERTU oihukatzen badute, lehenengo bera egingo dute. URRUTI oihukatzen badute, berriz, zaindarien taldeak 20ra arte zenbatuko du, eta basoko taldekoak korrika aldentuko dira, baina ez dira ezkutatu; izan ere, oraingo honetan, zaindarien ikus ditzaten lortu behar dute, eta ikusteko moduan ez dauden haurrak pasatuko dira zaindarien taldera.


Jolasa amaitzen denean, begiraleak galderak egingo ditu, jolasaren gauzatzeari buruz eta hurrek nola sentitu diren azaltzeko. Jarraian, begiraleak galdetuko die ea, beren ustez, zein egoeretan den egokia ezkutatzea eta zein egoeretan den garrantzitsua besteek norbera ikustea. Adibidetzat jar daiteke honako hau: garrantzitsua da besteek norbera ikustea oinezkoen igarobidetik pasatzean, galtzen garenean eta abar.



**JARDUERA
MOTA:**
Gelako edo jolas-
tokiko jarduerak

8-11
urte

Ez dadila puska!



EDUKIA:

Planifikatutako babesa.

GAITASUNAK:

Zaugarritasunaren eta arriskuaren kontzientzia.

METODOA:

Jolasa eta taldean eztabaidatzea.

HELBURUAK:

- Bideen testuinguruan babesteko beharra esperimintatzea.
- Babes estrategiak identifikatzea.

NOLA EGIN:

Begiraleak hiru edo lau kideko taldeetan banatuko ditu haurrak. Talde bakoitzak lortu behar du arrautza bat leku batetik bestera eramatea (20 metroko tartea, gutxi gorabehera), errelebo lasterketaren bidez. Arrautza eskuekin ukitu gabe eta ahalik denbora laburrenean lortu behar dute helmugara iristea eta, horretarako, eskuragarri duten materiala erabil dezakete (egunkari papera, kartoi mehea eta bestelako material birziklatua). Denborarik laburrenean ibilbidea egiten duen taldea izango da irabazle.

Jolasa egin eta gero, arrautza babesteko talde bakoitzak erabili dituen estrategiez eztabaida egingo dute.

Jolasak eta bide testuinguruak duten analogia azalduko du begiraleak: *pentsa ezazue arrautza zuek zaretela, eta kalean toki batetik bestera joan behar duzuela. Joan-etorrietarako zein baliabide erabiltzen dituzue? Zer estrategia erabiltzen duzue zeuen burua babesteko, joan-etorrietarako baliabide bakoitzean?*

**JARDUERA
MOTA:**
Gelako edo jolas-
tokiko jarduerak

8-14
urte

Badakit zer sentitzen dudan



EDUKIA:

Emozioak.

GAITASUNAK:

Neure burua eta nire emozioak
kudeatzea.

METODOA:

Mugimendu ariketa eta taldean
eztabaidatzea.

HELBURUAK:

- Sentitzen ditugun emozioez
jabetzea.
- Emozioak eta horiek
mugikortasunean dituzten
ondorioak elkarrekin lotzea.

NOLA EGIN:

Egoera emozionalak identifikatzeko musika bidezko mugimendu ariketa bat proposatzen dugu. Begiraleak erlaxatzeko giro egokia sortuko du: argi ahula eta hondoko musika lasaia. Giroa sortu eta gero, egoera emozional bakoitzaren irudikatzea irakurriko die, eta hurrek jarraibideei jarraitu beharko diete. Irudikatzearen bitartez, haurrak jolastokian edo gelan batetik bestera mugituko dira, irudikatutako egoera emozional bakoitzean sentitzen dutena adieraziz (oihuka, negarrez, korrika, zoruan herrestaka eta abar). Parte-hartzaile guztiak mugimenduaren bidez emozioak adierazten ari diren unean, begiraleak egoera emozional horretan beren mugikortasunari loturiko eginkizun bat «imitatzea» proposatuko die. Esate baterako, *oso-oso goibel zaude, eta bizikletaz joan behar duzu ikastetxeraino*. Haurrak astiro, burumakur, arreta handirik jarri gabe... joango dira; hori da ariketaren funtsa. Eta, begiraleak, galdera hauek egin diezazkieke haur batzuei: ea zergatik doazen hain astiro, ea arreta jartzen ari diren, zer gertatuko den gorri dagoen semaforora iristen direnean eta abar. Hori bera egin daiteke hainbat bide egoera eta emozioekin: *urtebetetze festa batera joan; errieta egin berri dizute, ez dizutelako zerbait egiten uzten...*

Irudikatzea: haurrak biribilean jarriko dira, zutik; sorbaldak lasaituko dituzte eta kontzienteki hartuko dute arnasa, astiro-astiro, arnasa hartu, arnasa bota. Lepoa alde batetik bestera biratuko dute, emeki; hori

bera egingo dute sorbaldekin eta gerriarekin, alegia, zirkulu formako mugimenduak egingo dituzte, zakarkeriarik gabe. Jarraian, oreka landuko dute; oin baten gainean lehenbizi, beste oinaren gainean gero, eta hasierako jarrerara itzuliko dira, hankak eta besoak gurutzatu gabe. Eta nolabaiteko poztasuna sentitzen hasiko dira, kilimak sabelean, irribarrea ezpainetan. Espazioan libreki mugitzen hasiko dira, eta gorputzari, musikari eta poztasun eta ongizate sentipenari jarraituko diote. Minutu bat igaro ondoren, bizikleta hartuko dute, eta ikastetxetik etxera joango dira, gorputza goitik behera hartu dien poztasun horrekin (bizikletaz doazenarena egingo dute pare bat minutuz). Eta, apurka-apurka, nekatuta, oso nekatuta daudela sentituko dute; eta poztasuna desagertuko da, eta irribarreak ezpainetatik ihes egingo die. Gorputza astun sentitzen dute, eta bizikleta geratu dute. Sentitzen dute gorputza atsekabeak hartzen duela pixkanaka, eta ez dakite bizikletaz joan nahi duten, edo oinez, edo ez duten ezer egin nahi, gero eta tristeago sentitzen baitira. Baina etxera iritsi behar dute, eta kalean dabilta arima herratu baten moduan...

Ariketa egoera emozional positiboren batekin bukatuko dugu. Jarraian, biribilean eseriko dira, eta honako hauei buruz hitz egingo dute: zer sentitu duten egoera emozional bakoitzean, eta ea erraza iruditu zaien eginkizuna egoera emozional horretan egitea.

**JARDUERA
MOTA:**
Gelako edo jolas-
tokiko jarduerak

12-14
urte

Eta zer nahi dut nik?



EDUKIA:

Asertibitatea.

GAITASUNAK:

Taldeko presioarekiko erresistentzia.

METODOA:

Dilema morala eta rol jokoa

HELBURUAK:

- Erabakiak hartzeaz eta taldearen eraginaz gogoeta egitea.
- Neure iritzia eta neure segurtasuna defendatzeko komunikazio trebetasunak eta jarrerak praktikan jartzea.

NOLA EGIN:

Lehen atala: DILEMA MORALA

Begiraleak dilema morala zer den azalduko die neska-mutiei: amaierarik ez duen istorioa da, eta istorio horren gaineko erabaki bat hartu behar da, baina bi aukera baino ez dira izaten, hasiera batean behintzat. Haurrek aukera bakarra hautatu behar dute; biak dira onargarri, eta aldeko eta kontrako arrazoiak dituzte. Dilema irakurri edo azaldu egin daiteke (1. eranskina).

Begiraleak, azalpena eman eta gero, zer egingo luketen erabaki dezatela eskatuko die parte-hartzaileei. Bakoitzak hartuko duen erabakiaren arabera, bi taldetan banatuko dira (eskuineko aldean lehen aukera hautatu dutenak; eta, ezkerreko aldean, bigarren aukera hautatu dutenak).

Bi taldeak eratu eta gero, talde bakoitzak bere aukera hautatzeko izan dituen arrazoiak gogoeta egingo du. Talde bakoitzeko bozeramaileak azalduko ditu arrazoiak, eta eztabaida egingo dute. Hitzaz hartzeko txandak ezarriko dira, eta begiraleak egingo ditu moderatzaile lanak. Begiraleak neutral izan behar du, eta dilema ebatzi gabe utzi behar du eztabaida amaitzen denean.

Bigarren atala: ROL JOKOA

Bi iritzi taldeetako boluntarioek rol joko bat prestatuko dute. Joko horretan, tartean den bakoitzari erabakiaren berri nola emango dioten erakutsiko dute. Hiru boluntario behar dira, gutxienez, eta bakoitzak eginkizun bat izango du. Hona hemen rolak:

1. rola. Izaskun, Nekaneren adiskidea, dileman azaldutako jazoera izan zuena. Adiskide gehiago ere egon daitezke berarekin. Ez dute ulertzen Nekanek zergatik egiten duen beti gurasoek esandakoa.

2. rola. Nekaneren gurasoak; asko arduratzen dira alabaz, eta berarengan konfiantza duten arren, uste dute gero eta arrisku handiagoa dagoela kalean, batez ere zirkulazioari lotuta. Alabak ongi pasa dezan nahi dute, baina arriskupean egon gabe.

3. rola. Nekane; zure erabakia defendatu behar duzu, eta tartean diren beste biei (gurasoak eta Izaskun adiskidea) azaldu behar dizkiezu zure erabakia eta arrazoiak.

1 erans- kina

Dilema morala

Nekane pozez zoratzen dago patinete berriarekin; patinetea eskuan hartuta joaten da leku guztietara. Adiskide guztiek dute bana, eta plaza batean elkartzen dira jolasean aritzeko eta itzulipurdiak eta jauziak egiteko. Halako batzuk benetan ikusgarriak eta arriskutsuak dira. Iragan astean, adiskideetako batek proposatu zuen patinetez joatea herrigunearen beste muturrean dagoen plazara, herria zeharkatuta. Adiskideetako batek ere ez zuen birritan pentsatu, Nekane izan ezik. Azkenean, amore eman zuen, baina ez zegoen egingo zuenaz oso ziur. Ibilbidea ondo hasi zuten, baina aurrera egin ahala, gero eta azkarrago zihoazen. Hainbat lagun ikusi zituzten espaloian eta, beraz, galtzadara jaitsi eta handik jarraitu zuten. Biderik laburrena hartzeko, kale batean eskuinetara hartu zuten. Izaskun zihoan guztien buru eta, bat-batean, auto bat aurkitu zuen aurrez aurre, kale hartan kontrako noranzkoan zihoazen eta! Ene! A zer ikara hartu zuten denek! Nekanerik ahotik irten zitzaion bihotza ia, eta ozta-ozta lortu zuen orekari eustea. Hala ere, Izaskun barrez zihoan, eta helmugara iritsi zirenean, auto hura saihestea balentria eta abentura izan balitz bezala azaldu

zuen bizitako esperientzia. Auzoko batek gertatutakoa ikusi zuen, eta haurrak ezagutu zituen. Auzokoak gurasoei eman zien gertatutakoaren berri, eta Nekane etxera itzuli zenean, gurasoek errieta egin zioten eta patinetearekin plazara joatea debekatu zioten.

Aste hartan bertan, berriz elkartu ziren adiskideak patinete eta guzti betiko plazan. Ordubete zeramaten han, eta aspertzen hasiak ziren, ordurako. Izaskunek berriz egin zuen proposamen bera: «Joan gaitezen beste plazara herria zeharkatuta, hemen asper-asper egingo gara eta». Berehala, zera esan zuen beste neskatila batek: «Bai, baina gogoan duzue gertatutakoa, ezta? A zer ikara!». Izaskunek erantzun zion: «Bada, ez zen hainbesterako izan; eta, gainera, ez ninduen ukitu ere egin, eta erori ere ez nintzen erori». Oso ziur ez ziren arren, adiskideak patinete gainean jarri ziren; Nekane, artean, geldu zegoen. «Nekane, zertan ari zara? Bazatoz ala ez? Ez baldin bazatoz, hemen geratuko zara, bakar-bakarrik», esan zion Izaskunek.

Zer egingo zenuke zuk?





8-14
urte

Begi itxi- ireki batean



EDUKIA:

Arreta eta portaera segurua.

GAITASUNAK:

Arreta. Ingurunea aztertzea.

METODOA:

Antzerkia eta talde txikietan lan egitea.

HELBURUAK:

- Ohartzea, nahiz eta arretaz ibili, xehetasun batzuk ez ditugula beti erraz ikusten.
- Joan-etorriak arretaz egiteak duen garrantziaz gogoeta egitea.


NOLA EGIN:

Begiraleak sei lagun inguruko taldeetan banatuko ditu haurrak, eta gai libreko emanaldi bat prestatu behar dutela azalduko die. Antzezlanean, aktoreetako bat hiltzailea izango da (lehenago gertatutako krimen batean hiltzaile izan dena) eta gainerako taldeek «hiltzailea» nor den asmatu behar dute. Nor den asmatzeko, emanaldi bakoitzean, «hiltzailearena» egingo duenak gainerako ekintzekin bat etorriko ez den ekintzaren bat egin edo xehetasunen bat agertu behar du; adibidez, bolaluma buruz behera duela idatzi, une jakin batean ikusleak agurtu edo besteren bat.

Emanaldia prestatu eta gero, talde bakoitzak bere antzezlanea antzeztuko du, eta gainerako taldeek asmatu behar dute zein ekintza dagoen lekuz kanpo eta zein pertsonaia egin duen ekintza hori. Paper batean idatziko dute, eta «hiltzaile» gehien aurkitzen dituen taldeak irabaziko du.

Jarduera amaitu eta gero, taldeko lan txiki bat proposatuko du begiraleak: pertsona bakoitzak besteei azaldu behar die zein unetan egon behar izan duen bereziki erne edo adi.

Pare bat minutu utziko zaizkie hori egin dezaten eta, gero, esperientzia batzuk bateratuko dituzte. Bukatzeko, begiraleak gogoraraziko die zein garrantzitsua den bereziki erne ibiltzea kalean dabiltzanean, oinez, bizikletaz zein edozein ibilgailutan.




Jarduera 14-17 urte



JARDUERA
MOTA:
Irteerak hirian.

14-17
urte

Bizikletaz hara eta hona



EDUKIA:

Bidegorrian nola ibili.

GAITASUNAK:

Arreta. Egokitzea eta malgutasuna

METODOA:

Talde txikietan lan egitea eta taldean eztabaidatzea.

HELBURUAK:

- Identifikatzea zein mugikortasun egoeretan den garrantzitsua arreta handiagoz ibiltzea.
- Ibilbideak zehazten ditugunean bide segurtasunari ematen diogun garrantzia balioztatzea.

NOLA EGIN:

Lehen atala

Lehen atala: neska-mutilekin definitzea herrian bizikletaz egingo duten txangoan egin beharreko ibilbidea.

Haurrak talde txikietan jarriko dira. Begiraleak hiriaren eta inguruaren plano bana emango die taldeei, eta talde bakoitzak egingo luketen ibilbidea marraztu beharko du mapan.

Talde bakoitzak bere proposamena aurkeztuko du, eta, jarraian, talde guztiek ibilbide bakarra adostu beharko dute; guztiek egingo duten ibilbidea. Ibilbidea adosteko orduan, begiraleak galderak egingo ditu segurtasunari, abiadurari, bide moten erosotasunari eta bestelakoei buruz (gogoeta egin ea bidegorririk dagoen ala ez, kaleak noranzko bakarrekoak edo bikoitzekoak diren, aurreikusitakoaren arabera zenbat ibilgailu ibiliko diren —etorbide eta kale estuetan, bereziki— eta abar).

Bigarren atala

ibilbidea adostu eta gero, txangoa egingo dute. Itzultzen direnean, ekintza baliozta dezatela proposatuko die begiraleak: txangoa nolakoa izan den eta ibilbidea egokia izan den ala ez azaldu beharko dute. Begiraleak talde eztabaida erraztuko du; hitza hartzeko txandak eman eta kenduko ditu, eta zenbait galdera egingo ditu:

- Zein tokitan ibili zarete errazago?
- Zein toki izan dira zailagoak edo arriskutsuagoak?
- Ibilbide osoa izan al da egokia? Edo inprobisatu behar izan al duzue uneren batean? Zergatik? (lanak, norabide aldaketak, ibilbidea laburragoa plaza erditik zeharkatuz gero eta abar)

Mapan marka ditzakete tarterik erraz eta seguruena; eta ibilbideko tarte arriskutsuenen ordezkotako ibilbidea zehaztu dezakete.



**JARDUERA
MOTA:**
Gelako edo jolas-
tokiko jarduerak

14-17
urte

Bizikleta, eta zer gehiago?



EDUKIA:

Bizikletaz errepidean.

GAITASUNAK:

Ingurunea aztertzea.

METODOA:

Talde txikietan lan egitea eta taldean eztabaidatzea.

HELBURUAK:

- Istripuak murrizteko prebentzioa balioestea.
- Bizikletako segurtasun elementuak identifikatzea.

NOLA EGIN:


Begiraleak honako egoera hipotetiko hau azalduko du: adiskide talde batek txango bat egin nahi du mendira, bizikletaz. Haurrek bizikleta bana dute, mountain bike motakoa. Ez dute inolako osagarririk, baina zenbait hautatzeko aukera dute.

Haur bakoitzari zerrenda bat emango dio begiraleak (*ikus eranskina*), eta txangora bizikletarekin batera eramateko garrantzitsuentzat jotzen dituzten bost elementuak lehenesteko eskatuko die.

Banakako gogoeta laburra egin eta gero, bakoitzak bost osagarri hautatuko ditu, eta zerrendaren lehen zutabearen idatziko. Jarraian, gehienez bost laguneko taldeetan, erabakiak bateratuko dituzte. Helburua da guztien artean adostea zein bost elementu diren onenak bizikletaz egingo duten txangora eramateko.

Minutu batzuk utziko dizkie hori egiteko, eta gero, begiraleak taldeei eskatuko die ordezkari bana izenda dezatela; hark azaldu beharko du zein osagarri hautatu duen bere taldeak. Talde guztiek beren aukerak azaldu ostean, eztabaida egingo dute eta, azkenerako, bost elementuko behin betiko zerrenda egin beharko dute: talde bakoitzeko kideek beren ordezkariarekin hitz egingo dute, eta ordezkariak azalduko dituzte talde handian argudioak, eta hark negoziatuko du.

Eztabaida bukatzen dutenean, begiraleek iritzia emango dute taldeek aukeratu dituzten elementuen gainean, eta galderak egingo dituzte, segurtasun osagarrien beharrari buruz; besteak beste, kaskoa, eskularruak edo atzeko argia aipatuko dituzte.





Osagarriak

OSAGARRIA	NIRE ZERREDA	TALDEAN ADOSTUTAKO ZERREDA
Atzerako ispilua		
Klaxona		
Martxa eta pinoi gehiago		
Ordezko pneumatikoa		
Kaskoa		
Eguzkitako betaurrekoak		
Edari isotonikoa		
Islatzaileak		
Aurreko argi zuria		
Atzeko argi gorria		
Eserleku aerodinamikoa		
Euritarako arropa		
Telefono mugikorra		

OSAGARRIA	NIRE ZERREDA	TALDEAN ADOSTUTAKO ZERREDA
Joango garen tokiko mapa		
Iparrorratza		
Eskularruak		
Belaunetakoak		
Puzgailua		
Giltzarrapoa		
Lehen sorospenetarako botika kutxa		
Kilometro-kontagailua		
Oinetako bereziak		
Kaskoan jartzeko bideo kamera		
Elastiko transpiragarria		
Markako galtzerdiak		
Atzeko gurpillerako lohi-babesa		



Balbeduna

EDUKIA:

Prebentzioa.

GAITASUNAK:

Zaugarritasunaren eta arriskuaren kontzientzia.

METODOA:

Kasua eta eztabaida.

HELBURUAK:

- Arriskuari eta nire prebentzio ekintzei ematen diedan garrantzia balioztatzea.
- Zenbat eta arrisku handiagoa, orduan eta prebentzio handiagoa behar dugula ohartzea.

NOLA EGIN:

Lehen zatian, begiraleak honako kasu hau azalduko du:

Aitor mutiko normala zen, baina ikastetxean «balbeduna» esaten zioten, beti berari gertatzen zitzaizkiolako gauza txarrak. Murphyren Legearekin bat zetorren, bete-betean; eta gertatzen zitzaion guztia marikatu eta madarikatu aritzen zen etengabe. Ez zekien zehatz zergatik, baina hainbat eta hainbat gauza gertatzen zitzaizkion: egun berean, ogi txigortua erre zitzaion; bizikletaz txantxetan zebilela ia-ia auto batek harrapatu zuen; une hartan, jende mordoak begira zuela, bizikletatik erori zen; galtza berriak eta bizikleta puskatu zituen; autobusez itzuli behar zuen etxera; eta autobusa galdu zuen. Beraz, gurasoei dei egitea bururatu zitzaion, baina ez zuen dirurik mugikorrean, eta oinez zeharkatu behar izan zuen herria, galtza puskatuak aldean eta bizikleta apurtua eskuan. Etxera iritsi zenean, sekulako errieta egin zioten gurasoek, bizikleta eta galtzak puskatzeagatik. Eta halakoak edo antzekoak ziren Aitorren egun guztiak.

Bigarren zatian, begiraleak bi taldetan banatuko ditu haurrak, eta bata bestearen aurrean jarriko ditu. Taldeetako batek BAIEZKO erantzunaren alde egin beharko du, eta, besteak, EZEZKO erantzunaren

alde. Jarraian, honako baieztapen hau esango du begiraleak:

«Aitorrek zorte txarra du, eta ezin du ezer egin gertatzen zaizkion gauzak ez gertatzeko»

Begiraleak moderatuko du eztabaida; taldeei hitza eman eta kenduko die, eta galderaren bat ere egin dezake. Adibidez: Zorte txarra izan al da, zure ustez? Zure ustez, egin zezakeen ezer, gertatu zaizkion ezbeharretakoren bat saihesteko? Soilik arreta-neurriren bat hartu ahal izango bazenu, edo gure protagonistak bizitako egoeraren bat aurreikusi ahalko bazenu, zer neurri hartuko edo zein egoera aurreikusiko zenuke? Zergatik? Aurreikus al daitezke aurretik jakin ezin direnak edo istripuak?

Eztabaida luze samarra egin eta gero, begiraleak neska-mutilei esango die beren iritzia arabera aukera dezatela BAIEZKO ala EZEZKO erantzuna, eta argudia dezatela erantzuna. Begiraleak honako galdera hauek egingo ditu istripuak aurreikusteko beharrari buruz hitz egiteko:

- Izan al duzu inoiz gure protagonistak izan duen bezalako egun txarrak? Zer gertatu zitzaizun?
- Egoera horietako batzuek ba al dute zerikusirik mugikortasunarekin?
- Zure ustez, zer aurreikus zenezakeen, kontu handiagoz ibiltzeko? Zer egin behar zenuen?

**JARDUERA
MOTA:**
Gelako edo jolas-
tokiko jarduerak

14-17
urte

Emozioetan pasieran

NOLA EGIN:

Begiraleak ideia-jasa egitea proposatuko die neska-mutilei; horretarako, honako galdera hauek egingo ditu: amorru hitza esaten badizuet, zer datorkizue burura? Eta poza esaten badizuet? Eta beldurra esanda? Eta atsekabea?

Idea-jasa egin eta gero, begiraleak filmen atal batzuk ikustea eta/edo zenbait abesti entzutea proposatuko die (1. eranskina). Atal bakoitzaren amaieran, iritzia eman beharko dute: zer emozio eragin dieten eta zer gogorarazi

dieten; eta, nahi badute, azal dezakete bizitzako zein unetan sentitu duten emozio hori.

Merezi du gogoratzea oinarrizko lau emozioak honako hauek direla: amorrua, poza, atsekabea eta beldurra. Bizitzako une batzuk azaldu eta gero, begiraleak galdetuko die ea zer egin zuten emozio hura lasaitzeko. Eta emozioak kudeatzeko estrategiez hitz egingo dute, ondoren. Zer da eraginkorrena, kasu bakoitzean?



EDUKIA:

Oinarrizko emozioak.

GAITASUNAK:

Neure burua eta nire emozioak kudeatzea.

METODOA:

Idea-jasa, taldean eztabaidatzea eta dantza.

HELBURUAK:

- Emozioak ezagutzea, sentitzea eta esperimentatzea.
- Hausnartzea ea zenbateraino garen jakitun emozioek mugikortasunean eragina dutela.

1
erans-
kina

Proposatzen
ditugun filmak
edo abestiak

AMORRUA

Ejecutivo agresivo

01.21.06. minututik
01.23.25. minutura = 02.20´



Un día de furia

00.39.49. minututik
00.42.57. minutura = 03.08´



Alguien voló sobre el nido del cuco

00.43.55. minututik
00.46.59. minutura = 03.04´



ATSEKABEA

Abestia:

Se le apagó la luz.

Alejandro Sanz.



POZA

Cantando bajo la lluvia


01.04.38. minututik
01.08.48. minutura = 03.01´



BELDURRA

Te doy mis ojos


00.08.15.00. minututik
00.11.12. minutura = 02.57´



**JARDUERA
MOTA:**
Gelako edo jolas-
tokiko jarduerak

14-17
urte

Maite al nauzu?



EDUKIA:

Besteen onarpen beharra.

GAITASUNAK:

Taldeko presioarekiko erresistentzia.

METODOA:

Kasuak, autokasuak eta taldean eztabaidatzea.

HELBURUAK:

- Besteek espero dutenak norberarengan eragiten duen presioaz hausnartzea.
- Erabakiak hartzea eramaten gaituzten arrazoiez jabetzea.

NOLA EGIN:

Begiraleek kutxa bat ekarriko dute, eta honako hau dioen kartela jarriko diote:

Zalantza eta arazoen aholkularitza.

Neska-mutilek, paper zati txikietan (orri erdi), partekatu nahi dituzten eta irtenbidea bilatu nahi dieten galderak, zalantzak eta arazoak idatziko dituzte; bereziki, adiskideen, gurasoen edo beste batzuen presiopean daudela sentitzen duten egoerak. Orrietan ez dute izenik jarri behar. Begiraleek munduko beste toki batzuetatik burofaxez iritsi diren «arazo» batzuk sartuko dituzte.

Hona hemen burofax bidez iritsi den paper baten kopia:

Kaixo. Miren dut izena eta 16 urte ditut. Hilabete barru 17 urte beteko ditut, eta urtebetetze festa prestatzen ari naiz. Sei hilabete dira Oskarrek inrteten hasi nintzela. Oskarrek 18 urte bete berri ditu, eta primeran nago berarekin. Badakit, urtebetetze oparizat, hotelean gau bat eta afari erromantikoa egiteko asmotan dabilela, eta aparta izango dela dirudien arren, beldur naiz. Zer gertatuko da prest ez banago? Eta, demagun honako hau esaten didala: «benetan maite banauzu, erakutsi egin behar didazu hori» Ez dakit nolatan ari zaidan hori niri gertatzen! Laguntza behar dut; zer iritzi duzue nire egoerari buruz? Zuen ustez, zer egin beharko nuke? Eskerrik asko. Miren.

Begiraleak banan-banan irakurriko ditu «arazoak», eta honako galdera hau egingo die neska-mutilei: zer iritzi duzue egoera horri buruz? Zer egin behar du, zuen ustez? Sentitu al duzue inoiz horrelako presiorik, horrelako edo bestelako egoeraren batean? Sentitu al duzue inoiz norbaiten presiorik, nahi ez zenuten edo argi ez zeneukaten zerbait egiteko? Egoera horietakoren batek ba al du zerikusirik mugikortasunarekin?



**JARDUERA
MOTA:**
Gelako edo jolas-
tokiko jarduerak

14-17
urte

Ikusi, onartu eta, beraz, barneratzen dut



EDUKIA:

Arrisku objektiboa. Hautematea / Onartzea.

GAITASUNAK:

Zaugarritasunaren eta arriskuaren kontzientzia.

METODOA:

Dilema morala eta arrisku eskala.

HELBURUAK:

- Mugikortasun egoeretan zaugarritasuna balioztatzea.
- Mugikortasun egoeretan arriskua murrizteko beharraz jabetzea.

NOLA EGIN:

Hezitzaileak dilema morala zer den azalduko du: amaierarik ez duen istorioa da, eta istorio horren gaineko erabaki bat hartu behar da, baina bi aukera baino ez dira izaten, hasiera batean behintzat. Haurrek aukera bakarra hautatu behar dute; biak dira onargarri, eta aldeko eta kontrako arrazoiak dituzte. Dilema irakurri edo azaldu egin dezake begiraleak, baina iruzkinik egin gabe (1. eranskina). Begiraleak, azalpena eman eta gero, zer egingo luketen erabaki dezatela eskatuko die parte-hartzaileei, baina ez dute esan beharko oraindik. Begiraleak lerroan jarriko ditu haurrak, begiak ixteko eskatuko die (elkarren eraginik izan ez dezaten), eta esango die lehenengo aukeraren alde daudenak jar daitezela bere eskuinaldean, eta bigarren aukeraren alde daudenak ezkerrean. Bi taldeak eratu eta gero, talde bakoitzak bere aukera hautatzeko izan dituen arrazoiaren gainean gogoeta egingo du. Talde bakoitzeko bozeramaileak azalduko ditu arrazoiak, eta eztabaida egingo dute, gero. Begiraleak zuzenduko du eztabaida, eta berak eman eta kenduko die hitza neska-mutilei.

Eztabaidan, parte-hartzaileetako edozein lekuz alda daiteke, baldin iritzia aldatzen badu. Hezitzaileak neutral izan beharko du, eta dilema ebatzi gabe utzi beharko du saioa amaitzen denean.

Eztabaida errazago egiteko, begiraleak **eskala marraztuko du zoruan**, klariona edo kartoi mehea erabiliz.

Parte-hartzaileak egoki jotzen duten zenbakian jarriko dira begiraleak istoriora aldagai bat sartzen duen bakoitzean.

Aldagaiak:

- Adiskide bati hots egitea bila etor dadin; festa da garrantzitsua.
- Minutu pare bat hartzea lasaitzeko, eta ziklomotorrez itzultzea.
- Merkataritza gunean bonbilla bat erosi eta hura jartzen saiatzea.
- Adiskide bati edo gurasoei hots egitea, bonbilla bat ekar diezaioten.

ZIKLOMOTORREZ JOATEA

-5 -4 -3 -2 -1 1 2 3 4 5

ZIKLOMOTORREZ EZ JOATEA

anexo 1

Dilema morala

Ikerren urtebetetze eguna da gaur. 16 urte bete ditu, eta emozioz beterik eta urduri dago, institutuko adiskideak festa bat prestatzen ari direla baitaki. Gainera, duela egun batzuk, Iratik, gogoko duen neskak, mutil lagunarekin zuen harremana eten zuen. Egun osoan gauza bakarra du buruan: ea neskak berarekin ibili nahiko duen ala ez.

Adiskide dituen nesketako batekin hizketan zebilela, ihes egin dio hitz erdi batek, alegia, Iratik mutil lagunarekin zuen harremana eten zuela berak oso ondo ezagutzen zuen beste mutil batenganako interesa zuelako. Ikerrek zeharka esandako hori harrapatu du, eta pentsatu du bere urtebetetze festa aitzakia bikaina izan daitekeela Iratirengana hurbiltzeko.

Goizean, ziklomotor berrian joan da institutura, pozik. Ikerrek hondoko musika bailiran entzuten ditu eskolak; izan ere, orduak ahal bezain azkar igaro eta festarako ordua iritsi dadin nahi du; hori baino ez.

Institututik irteterakoan, ate alboan dagoen batek zera jakinarazi dio: «Ziklomotorraren atzeko argia ez

dabil, ezta?» Iker berandu dabil, eta zera erantzun dio: «Ez!». Ziklomotorra abiarazi eta etxera joan da, festarako apain-apain jartzera.

Etiket irtetear zela, gurasoak ohartu dira atzeko argia ez dabilela, eta bi aukera eman dizkiote Ikerri: bonbilla aldatu edo autobusez joan. Orintxe! Orintxe behar zuen izan!

Zitzu batean bonbilla aldatzen hasi da, baina, lan horretan ari zela, zenbait senidek eta adiskidek telefono mugikorrera deitu diote zorionak emateko. Hizketan luze aritu eta gero, eseki dute telefonoa, azkenean! Erlojuari begiratu dio, eta zer ordu den ohartu da: berandu iritsiko da bere festara. Urduri jarri da, eta bonbilla lurrera erori eta puskatu egin da. Ikerrek lurrera bota ditu erremintak, kaskoa hartu du eta denak emanda joan da.

Bidean doala, ilundu egin du, eta festa egingo den tabernara iritsi baino kilometro pare bat lehenago, auto batek jo du ia-ia. Autoa larruazaletik eta ziklomotorretik zentimetro gutxi batzuetara nabaritu du; hain igaro zaio gertu, harrapatzeko zorian egon baita. Ikerrek, une batez, film batean bezala

ikusi du bere bizitza osoa. Egundoko izualdia hartu duenez, handik gertu dagoen merkataritza gunen baten aparkalekuan geratu da.

Dardarka ari da, burutik oinetara, eta lanak ditu arnasa hartzen ere. Zalantza izan du ziklomotorra merkataritza gunean utzi eta festara oinez joan, eta gero, gurasoak etor daitezela bila; edo, bestela, ziklomotorrez ekin bideari berriz, ahalik eta azkarren, autoek harrapa ez dezaten.

Zer egingo zenuke, Iker bazina?



Material honen egileak:



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

SEGURTASUN SAILA
Segurtasun Sailburuordetza
Trafiko Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD
Viceconsejería de Seguridad
Dirección de Tráfico

formaccio

tailer kreatiboa
taller creativo
creative workshop **tk**